



17 18

MEMORIA



LAUAXETA IKASTOLA



AURKIBIDEA

01

AURKEZPENA

05

FITXA TEKNIKOA

11

HEZKUNTZA DATUAK

39

KUDEAKETA DATUAK



Ez gagoz horren txarto

Bill Gatesek EEBBetako graduatu guztiei oparitutako liburu batek, baikorrak izateko arrazoiak badagozala egiaztatzen dau. Bill Gatesek, graduatzea lortzen eben estatubatuar ikasle bakoitzari Factfulness liburuaren ale bana oparituko eutsiela zin egin eban. Liburu hau, munduaren egoeraren inguruko ikuspuntu baikorra duen entsegu bat dogu.

Hans Rosling idazlearen lan honek, ondoko lerroen inguruan hausnartzen dau:

- *Munduaren egoeraren inguruko iritzia emoten daben pertsona gehienek, datu eta estatistika errealak kontutan izan gabe egiten dabe.*
- *Munduari buruzko ikuspuntu ezkor gehienak, gainditutako ezagutzetan eta atzean itzi doguzan hamarkadetako egoera eta erreportaietan oinarritzen dira.*
- *Pixkanaka emoten diran hobekuntza asko daukaguz inguruan eta kontutan izan behar da hobekuntza geldo hori ere, hobekuntza dala.*

Ildo beretik, Francesc Miralles idazle eta kazetariak, zera azpimarratzen dau: ume guztiek oinarritzko txertoak jasotzen dabezala eta erabateko pobrezia sufritzen dauen poblazioaren portzentaiaren beherakada, nabarmena dala. Hala eta guztiz ere, ez gara hobekuntza honeetaz ohartzen, beharbada jasotzen doguzan mezu eta inputek ezkortasunerantz jotzen dabelako. Autore honen arabera, aurrerapenak albiste izan behar dira. Gertakizun ezkorrak, beldurak, zalantzak, eta susmoak, gure buruan bueltaka aritzen dira, era automatikoan.

Steven Pinkerrekin garapenaren etsaien aurka egitera gonbidatzen gaitu. Mundua atzerantza baino ez doala pentsatzen daben horreen aurka. Mundua geroz eta okerrago doala eta, berau aldatzen saiatzeak zentzurik ez daukala ulertzen daben ezkorren aurka. Autore honen arabera, etengabe aspektu negatiboei soilik adituz, egoeraren balorazio oker bat baino ez dogu lortuko, eta irtenbiderik ez dagola ulertzera eroango gaitu. Baina gauzak ez dira horrela.

Arazo larriak daukaguz, bai, baina bat-batean barrikuntzak eta hobekuntzak sortzen dira. Gauzak ezberdin egitea bururatzen jakon gazte talde bat agertzen da: hori da sustatu behar dogun jarrera, gogoia eta ez frustrazioa.

Unai Atristain Aranguren- Presidente del Consejo Rector



Oinarri zientifikodun baikortasuna

Euskadin izandako azkenengo kongresu zientifiko batetan, gure hezkuntza proiektuaren oinarrian dagozan hainbat hipotesi zientifiko baieztatu ziran:

Lehenik eta behin, hezkuntzaren inguruan iritzia emoteko eta argudiatzeko, beharrezkoa da baieztatutako ebidentzietan oinarritzea eta ez bat-bateko burutazioetan.

- *Ikasleriarenganako eta ikastetxearenganako itxaropen positiboak, oso garrantzitsuak dira emaitza onak lortzeko orduan. Aldiz, determinismo katastrofista baten oinarritutako iritziek, ez dabe batere laguntzen. Hain zuzen ere, datu zientifikoek eta ikerketek zera erakusten dabe: testuinguru soziolinguistikoa eta sozioekonomikoa edozein izanda ere, praktika onak garatzen dabezan ikastetxeek eta familiek, arrakasta lortu daikée. Beraz, badaukaguz arrazoiak optimistak eta errealistak izateko.*
- *Kontraste zientifiko nahikorik ez daukeen ideien eta sinesmenen eraginpean gagozanean edota interes mediatikoa bai baina zorrotasun nahikorik ez daukeen debateetan murgiltzen garenean, ezkortasuna eta akats larriak egiteko aukerak areagotzen dira. Ondorioz, "hezkuntza populismoak" eroan gabe, beharrezkoa dogu jarrera zientifiko bat mantentzea: eszeptizismoa, iturrien kontrola eta bardinen arteko errebisioa erabiliz. Aldi berean, gomendagarria da arazoak ebazteko orduan, honeenganako distantzia hartzea, batzuetan gehiegizko hurbiltasunak edo urruntasunak berak ere akatsak egitera eroan gaitzakez eta, aldi berean gure osasun fisiko eta mentala babestea lortuko baitogu.*

Azkenik, bizitzan zehar emoten dan ikasketa prozesuan bere abantailak erakutsi dauazan ideia bat azpimarratzea nahiko neunke: akatsaren balioaz jabetu behar dogu eta hobekuntza beharrian bat identifikatzeko aukera bezala ulertu.

Amaitzeko, apaltasunetik eta lasaitasunetik abiatuz, gure errealtatearen, hezkuntza praktikaren eta mundu zientifikoaren arteko elkarriketaren balioa azpimarratzea besterik ez.



Artezkaritza kontseilukideak, ezkerretik eskumara eta goitik behera: Mikel Pagonabarraga, Josu Arteta, Carlos Alzaga, Iñaki Isasi, Koldo Meso, Iratxe Olabarri, Juan Mari Totorika, Juan Ramon Aurrekoetxea, Unai Atristain, Nerea Lupardo eta Nerea Martiartu.

Talde



Zuzendaritza kideak, ezkerretik eskumara: Aitor Pagaldai, Maritere Ojanguren, Iñaki Malaxetxebarria, Edurne Zamalloa, Jon Agirre, Xabier Arpide eta Miren Munitis.


lana

01

FITXA TEKNIKOA

01 FITXA TEKNIKOA

“**Pertsona garatuz gizartea eraikitzen**
Personal development to build a society
Desarrollo personal para construir sociedad”



Helburu orokorra:
zoriontsu izateko eta norbere
etorkizuna jorratzeko
gaitasuna garatu



Jarrera eta
balore
koherenteak
kudeatuz



Bizitza osoko ikasketa.
Epe luzeak eta
testuinguru ez-jakinak



Kompetentziak:
zeharkako
edukiak



Diziplina aniztasuna:
Proiektuak.
Learning by doing



Elkarbizitza
eta talde lana



Kompetentzia
bidezko ebaluaketa.
Indarrak eta
hobetze guneak




Lauaxeta digital.
Ezagutzarako
sarrera
pertsonalizatua



Aniztasuna.
Hobekuntzarako
helburu pertsonalak





1.460 ikasle (18-19 ikasturtean)
1.450 ikasle (17-18 ikasturtean)



106 irakasle eta
15 ez dozente



20.350m² kanpoko
kirol instalazioetan



6.200m² kirol
instalazio estalietan



89.225m² lursailietan



12.000m² ikasgeletan





02

HEZKUNTZA DATUAK

02 HEZKUNTZA DATUAK

Gaitasunei lotutako garapen pertsonala

Konpetentzien garapena, Lauaxetaren hezkuntza ereduaren ardatz nagusia da.

Berauen bitartez, ikasleengan ezagutza, gaitasun, jarrera, balore eta irizpideak bultzatu nahi dira, arazo eta egoera desberdinei aurre egiteko.

Horrela izanda, ezagutzak ez dira helburu, baizik eta konpetentzien garapenerako bidea.

Testuinguru hau da Memoria honetan laburbiltzen diran 2016-2017 ikasturteko ekintza guztiei zentzua eta koherentzia emoten deitsona.

ZEHARKAKO KONPETENTZIAK

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
- Elkarbizitzarako konpetentzia
- Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia
- Norbera izaten ikasteko konpetentzia

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

- Hizkuntza eta komunikaziorako konpetentzia
- Konpetentzia matematikoa
- Konpetentzia zientifikoa
- Konpetentzia teknologikoa
- Konpetentzia sozial eta zibikoa
- Arterako konpetentzia
- Konpetentzia motorra

Think S(h)are

Lauaxetan diseinatutako Think S(h)are proiektuak, Haur eta Lehen Hezkuntzarako hezkuntza plana jasotzen dau eta bere helburu eta kontzeptu nagusienak barneratzen dauz bere izenean bertan: Think = Pentsatu, Share = Partekatu, Sare = Ezagutza eta gaitasunen sarea.

Bere helburu nagusia XXI. mendeko hezkuntzarako beharrezkoak diran erreminta barritzaileez hornitzea da, etorkizuneko belaunaldien beharrezkoak erantzuna emonez. Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzatik abiatuz, Think S(h)are proiektuak, aberaste kurrikular, didaktiko eta metodologikoa gauzatzeko elementuak barneratzen dauz.

Ohiko eduki kurrikularrak gaindituz, ikasleentzako hainbat ezagutza espezifiko erantzen dauz eta konpetentzia espezifiko eta zeharkakoetan sakontzen dau, programa kurrikular osotuago eta aberastuagoen bitartez.

Gure zeregin profesionalaren helburua, ikasleei, euren bizitza sozial, pertsonal, akademiko eta profesional arrakastatsua bideratzea posible egingo daben goi mailako gaitasun eta abilezien garapena erreztea da, eta

ikasleak eurak, gaitasun honeen lanketagaz konprometitu daitezala lortzea.

Kurrikuloaren aberasketa hau, estilo pedagogiko bat definitzen daben irizpide eta balore batzuetan oinarritzen da eta bere abiapuntua, neurohezkuntza eta ikasketaren inguruko teoriak dira. Honen guztiaren ondorioz, egunerokoan gure hezkuntza baloreen inplementazioa gauzatzen dabezan hainbat teknika eta estrategia diziplinar eta zeharkako garatu doguz.

Ikuspuntu metodologikotik ere, benetako iraultza bat suposatzen dau, esperimentazio aktiboa eta ikasketa esanguratsua eta eraginkorra gauzatzen daben metodologia barritzaileak, baliabide materialak eta ikasketa eremu barriak mahaigaineratzen dauz eta.

Think S(h)are proiektua osotzen daben programa didaktikoak, ondokoak dira:



HitzHartu+irakurketa plana

Garapen komunikatibo eta linguistikorako programa (hizkuntzen trataera bateratua)



BiziMat

Garapen logiko-matematikorako programa



TIC-TAC-TEC

Robotikara sarrera eta gailu digitalen erabilera



Sormen+ArtezArte

Garapen sortzailerako programa multidiziplinarra: arkitektura, eskultura, pintura, zinea, bertsolaritza, ...



Ikerlari

Garapen zientifikorako programa (natur eta gizarte zientziak)



GASE

Garapen sozio-emozionalerako programa



Filosofia

Pentsatzen eta ikasten ikasteko programa (gaitasun filosofikoaren eta pentsamendu abilezien lanketa)



Psikomotrizitatea

Garapen motorrerako programa

Laia: eskola ortua

Laia edo eskola ortua, **Lauaxeta Ikastolako Agenda 21** taldearen ekimen bat dogu. **Proiektu honeri esker lantzen diran kontzeptuen artean: naturagaz kontaktua, km-0 produkzioa, hau da, bertoko barazkiak kontsumitzeko aukera, elikadurak gure osasunarengan daukan eraginaz jabetzea edota produkzio eta kontsumo jasagarria sustatzea.**

Bidean, dedikazioa, lana eta egindako ahaleginaren fruituak jasotzeko konfidantza eta pazientzia: kalabazak, azak, kipulak, bruselasgo azak, ... guztia, Lehen Hezkuntzako ikasleen eskutan eta jasotakoa erosi daben familien laguntzari esker. Ikasleek ondo inbertitu dabe gainera trukean lortutakoa, orturako lanabes gehiago erosiz.

Ikastolako sukaldeak ere, gure ikasleen uzta jaso dau behin baino gehiagotan, Km0 kontzeptuaren erabateko islada izanez.

**Lauaxeta Ikastolako
eskola ortuaren
bideo azalpena:**

Bideoa ikusteko:
goo.gl/s4azLP



**Laia edo eskola ortuaren
proiektuaren
inguruko dokumentua:**

Dokumentua ikusteko:
goo.gl/m54qAX



**Gure blogean
Laia proiektuaren inguruan
argitaratutakoa:**

Ikusteko:
goo.gl/VxtGj7



Arlo honetan, aipagarria da Funghi Thinking proiektua. Foro Ekonomiko Mundialak sortutako Global Shapers Bilbao, barrikuntza soziala helburu dauan erakundeak bultzatutako proiektu bat dogu. Bertan, ikasleek, hainbat ikasketa barneratzeko aukera dauke, kafearen hondakinetatik Pleurotus Ostreatus perretxikoak nola lortu ikasteaz gain. Proiektuak hainbat adinetako ikasleak inplikatzan dauz, Lehen Hezkuntzatik hasi eta Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa barne.

Txikienak, Zientzia arlotik, lehenengo laborantza lanen arduradunak dira eta kafe hondakinak mizelioekaz nahasteaz arduratzen dira.

Bigarren Hezkuntzakoei, Teknologia arlotik, perretxikoak azaleratu daitezkan beharrezkoak diran hezetasun eta temperatura baldintzak ematen diren ziurtatzea dagokie. Horretarako, robotika ezagutzak aplikatzen dabez, Arduino plakak eta sentore desberdinak erabiliz, zeinek aste bitako epeaz 20.000 datu baino gehiago jasoko dabezan. Datuok, beste ikasle batzuek aztertuko dabez, dagokiezan ondorioak ataratzeko, oraingo honetan matematika arloa inplikatu.

Perretxikoak, behin loratuta, laborategian aztertutako dira beste ikaslee batzuen eskutan biologia arloa inplikatu, eta prozesu guztiari esker, Batxilergoko ikasleek, ekonomia arlotik, ikasitako guztia ekonomia zirkularraren kontzeptuagaz erlazionatzen dabe.

Proyecto Funghi Thinking
proiektuaren
inguruko bideoa:
goo.gl/yt3qh9

Komunikabideetan
agertutako artikulak:

Onda Vascan
izandako elkarrizketa:


goo.gl/VDRbxx

goo.gl/zVy2jz

goo.gl/HqD2vF

goo.gl/QG8gjZ

goo.gl/qkd9cD



L Digitala: Ikasketa Pertsonalizaturako esparrua

Gure ikasleen garapen pertsonalak, ezinbestekoa dau euren gaitasun digitalaren garapena bideratzea. IKTek funtzio garrantzitsua dauke arlo ezberdinetako edukien garapenean eta hori dala eta ikasgai bakoitzeko programazioaren parte dira.

Dispositiboen erabileraz gain, gure ikaslegoa, informatikaren erabilera etikoan murgiltzen dogu: identitate digitala, plagioa, delitu informatikoak, ...


Arlo honetan, 2017-2018 ikasturtean, besteak beste ondoko ekintzak gauzatu doguz::



TIC-TAC-TEP programa,

Haur Hezkuntzan:

IKTen erabilera, ikasketa helburuetan oinarrituta dago. 5 urteko geletan gainera, robota erabiltzen da, ikasleak programazioaren munduan barneratuz.



Science proiektua,

Lehen Hezkuntzan:

Natur Zientziak ikasgaia ingelesez, erakargarriak diran eduki eta appen bidez, ikasketa esanguratsuagoa lortuz.



1x1 iPad proiektua, Lehen Hezkuntza 4. eta DBH 3. mailetan:

iPada erabiliz, iTunes U, Moodle eta beestelakoetan dagozan edukiak lantzea.



iPadaren inguruko formazio saioak:

langile, familia eta beste ikastetxe batzuei zuzendutako formazio/informazio saioak.

Eremu honetan, azpimarratzekoa da baita, DBH eta Batxilergoko ikasleek ikasketa portafolio digital eta pertsonalizatu bat garatzen dabela, bakoitzaren ikasketa ibilbidea eta parte hartu dauan proiektuak, aurrerapusuak eta erronkak laburbilduz.

Aipatzekoa da era berean, Lauaxeta 4.0 proiektua. Berau, barrikuntza praktika on bezala aurkeztua izan zan Kudeaketa Aurreratuaren Europar Astearen eta bere bitartez Lauaxeta Ikastolak, Hezkuntza Komunitatearen eskura, bertako irakasleek garatutako 85 proiektu jartzen dauz.

Informazio gehiago: <http://www.ikasmaterialak.com>



Matematikak

Matematikak presentzia eta erabilgarritasun nabarmena dauka gure egunerokoan, bai eremu pertsonalean zein profesionalean erabakiak hartzeko. Ezinbestekoa da beraz, gure ikasleen garapen pertsonalari dagokionez, matematikak ere lantzea.

Horrela izanda, matematikak etapa guztietan lantzen dira: **Bizimat** programaren bitartez **Haur Hezkuntza** eta **Lehen Hezkuntza**, joko didaktikoak, appak eta hainbat baliabide erakargarri erabiltzen diralarik ikasleek kontzeptu matematikoak barneratu dagiezan, edota **xakea Lehen Hezkuntza**n, kontzeptu espazial, numeriko eta matematikei lotutako arazoen ebazpena eta estrategiak lantzen diralarik.

Atal honetan, ondokoak aipatu daiegu:



Artematika:

Lauaxetako proiektu honetan, ikasleek arte lan bat garatu behar dabe gai sozial bat isladatzeko, sormena erabiltzeaz gain, gaitasun logiko eta matematikoak ere bertan isladatuz.



Udaberriko XXI. Matematika lehiaketa:

Matematikak dibertigarriak ere izan daitezke eta horrela erakutsi dabe Lauaxetatik esperientzia honetan parte hartu daben ikasleek: Jon Valbuena Álvarez, Ander Lasarte Antxustegi, Eleder Martín Lancho, Aimar Pagonabarraga Gallastegui; Jon Lorenzo Insausti, Ines Hernández García, Ines Arraibi San Antón, Haritz Domínguez Jaramillo, Adrián Martínez Fernández, Eneko Renteria Gabantxo eta María Elorz Lozano. Jon Lorenzo eta Eleder Martín, gainera, sarituak izan ziran.



Pi Eguna, Lauaxetan:

Pasatako ikasturtean, Pi Eguna ospatu genduan Lauaxeta Ikastolan. Aurreko 5 egunetan, DBHko ikasleek, hainbat erronka izan ebezan ebazteko. Adrian Martinez eta Iñaki Arrieta, sarituak izan ziran erronka ezberdinen ebazpenagatik eta Ander Salazarrek "Pi"esia hoberenaren saria jaso eban.

Aipagarria da baita Math Mystery Box metodologia, Lauaxeta Ikastolako profesionalek eta kolaboratzaileek garatutakoa da. Euren asmoa, jolas manipulatioa erabiltzea matematiken inguruko ezagutzak barneratzeko orduan, jolasa eta ikasketa bat etorri daitezkeza erakutsiz.

Metodologia hau, ikasleentzako ikuspuntu barritzaileak eskeintzeko ahalegin bat dogu, ikasleen interesa piztu eta arlo teknologiko eta zientifikoetara hurbilduz. Egun honeetan, Lauaxeta Ikastolako 3. DBHko ikasleek izan dabe Math Mystery Boxen bitartez aritzeko aukera.

Informazio gehiago: <http://mathmysterybox.com/>



Zientzia eta teknologia

Zientzia eta teknologia Lauaxeta Ikastolaren ardatz nagusi bi dira. Metodo zientifikoan oinarritutako lana eta esperientzia ikasketa iturri bezala, gure ikasleek garatzen dabezan hainbat proiekturen oinarrian dagoz. Etapa guztietan garatzen da arlo hau: **Haur Hezkuntzako Ikerlari programan**, naturaren bitartez ikasten da, **Lehen Hezkuntzako Sciencen**, ingelesez garatzen dira proiektu zientifikoak, eta **DBHko Zientziak katean**, esperimentaziora bideratuta dago. Honeetaz gain, Lehen Hezkuntzatik hasita, **zientzia eta robotika eta programazio** jardunaldi bereziak izaten dira.

Aurreko ikasturtean, ondokoak garatu dira besteak beste:



First Lego League eta First Lego Junior:

Lauaxetako ikasleek First Lego Leaguen parte hartu eban beste behin. Kasu honetan bai First Lego Leaguen eta txikiagoei zuzendutako First Lego Juniorren ere. Esperientzia aberasgarria benetan.



Galiciencia:

Proiektuetarikobat, Rita Trevilla azaldutakoa eta berak eta Alazne Artetak garatutakoa, matematikak eta moda erlazionatuz. Beste bat zaurien sendatzearen ingurukoa, Irune Huerta eta Itziar Iragorrik azaldua eta eurak eta June Silva eta María Gámezek landutakoa.



Elhuyar Azoka:

Arantza Berasategi, Maider Etxezarraga eta Olatz Fernándezek, dislexiaren inguruko ikerketa garatu eban. Udako Euskal Uniobertsitateak, honen inguruko informazioa biltzen dau.



Exporecerca:

Jone Erauzkin, Rita Trevilla, Alazne Arteta eta Naia Bilbaok, DBHko 4. mailako ikasleek, euren lanak erakutsi ebezan: Matemoda, Rita Trevilla eta Alazne Artetaren esku, eta airean dagozan nanopartikulak analizatzeko low cost metodoa, Jone Erauzkin eta Naia Bilbaok aurkeztu eban. Azken bi honeek, La Caixa saria jaso eban.

Informazio gehiago:
goo.gl/ujvTwH



Informazio gehiago:
aoo.al/NDrk7J



Informazio gehiago:
goo.gl/97cSq3



Informazio gehiago:
goo.gl/g8HJvK



Lauaxetan ospatutako Zientzia Egunari dagokionez, hainbat gai landu ziren eta oso interesgarriak izan ziren ikertzaileen ondorioak. Dislexiarako material barriak, errepideetako babesleetarako material barriak, zahartzaroa aztertzen, sinestesia, irudimen infinitoa, paraplejia, nanopartikulak airean, alkohola detektatzeko papera, "Zu zeu, sentimenduen konpositorea", Nerbioi ibaiaren kutsaduraren ikerketa, teklatu piezoelektronikoa, geometria ikasten modaren bitartez, "Musikarekin ikasi ahal da?", berotegi efektua, erredurak, nerabetasuna eta aisialdia, usaimena, musikaterapia, tatuajeak, birikietako kutsadura, fobiak eta beldurrak, ekosistemak, itsuentzako betaurrekoak, uretan arnasteko maskara, grasa saturatuak, palma olioak, zarata, erloju biologikoa, central nuklearrak, kafeina eta bere eraginak, formolaren eragina gibelean, aeroportu zirkularra...



Euskadiko Kristalizazio lehiaketa:

Jone Escribano,
Garazi Etxebarria eta
Inés Hernández izan
ziran EHUK antolatutako
esperientzia honetan.

Inspira proiektua:

proiektu honek,
emakumezkoek zientzia
eta teknologiarik lotutako
lanbideetan dauken
presentziaren inguruko
hausnarketa bultzatzen
dau.

Ciencia en Acción:

Rita Trevilla, Alazne Arteta.
Irati Navarro, Nahia
Osuna,
Nerea Sainz de Baranda.
Amaia Etxebarria, Nora
Postigo, Ane Urgoiti eta
Izaro Petralanda.

Lauaxeta Ikastolako Zientzia Eguna.

Inspira proiektuari dagokionez, nabarmena da ikasle emakumezko askok zientzia eta teknologiagaz zerikusia daukeen proiektu eta ikasgaietarako dauken gaitasuna eta harrigarria, arlo honetako lanbide aukeraketari dagokionean, emakumezkoen presentzia eskasa. Zentzu honetan, ikasleengan (neskengan zehatzago) STEAM bokazioak, hau da, Zientzia, Teknologia, Injenieritza, Arte-Sormena edo Matematiketara loturiko bokazioak bultzatzeko. 6 saioaren zehar, STEAM zer dan, emakume eta gizonezkoen estereotipoak, lanbideak, emakumezkoak historian, emakumezkoak gaur egunean, ... kontzeptuak lantzen dira.

INSPIRA proiektu honen barne, ikastolaz kanpoko mentoreek gure neskekaz lantzen dabenean material bera, aldi berean, Lauaxeta Ikastolako irakasleek, mutilekaz lantzen dabe, Inspira proiektua berez neskengana zuzenduta egon arren, estereotipoen gaia, eragina eta gauzak aldatzeko gaitasuna, mutilekaz ere lantzea garrantzitsua deritzogulako.



Literatura eta komunikazioa

Norberaren ideiak adierazi eta komunikatzeko gaitasuna konpetentzia erabakigarria da, bai gure ikasleen orainean, baita euren etorkizunera begira ere.

Lehen Hezkuntzako 1. mailan, Hitzartu programaren bitartez, umeen diskurtsorako sormen naturala bideratzeko eremu bat eskeintzen da. Helburu nagusia, diskurtso eta testu mota desberdinen garapenean murgiltzea da joko eta dinamika desberdinen bitartez. Guztiagaz, euren adierazteko gaitasuna hobetzeko motibazioa bilatzen dogu, baliabide lingustiko, erretoriko... ugari erabiliz.

Zalantzarik ez gainera, gaur egungo gizartean, ikasleak euren ahotsaz adierazteaz gain, baliabide digitalen bitartez adierazteko ere gai izan behar dira.

Komunikaziorako gaitasuna, zentzu zabal horretan ulertzen dogu, beraz.

Ilido honetatik, 2017-2018 ikasturtean zehar, ondoko esperientziak garatu doguz:



Ciencia Show:

Asier Fernández,
Lauaxeta Ikastolako
ikaslea, estatu mailako
monologo zientifiko
lehiaketa honetan garaile
suertatu zan.

Argitaratutako albiste bat
ikusteko:
goo.gl/SEViyC



Cuentos contra el bullying:

Fair Saturdayk
antolatutako lehiaketa
honetan, eskola
jazarpenaren arazoaz
ohartarazi eta gizartearen
konpromisoa bultzatzea
da helburu. Eider Aburto
eta Malen Goñi, sarituak
izan ziran.



Coca Cola literatur lehiaketa:

Lauaxeta Ikastolako
DBH 2. mailako ikasleak,
esperientzia honetan
murgildu ziran.



Beldur Barik:

Gure ingurutik sexismoa
eta indarkeria aldentzea
helburu dauan bideo
lehiaketa honetan, 2.
batxilergo ikasle guztiek
parte hartu eben.

Bideotariko
batzuk ikusteko:
goo.gl/chc5M9
goo.gl/c6bCDA
goo.gl/PgVVRt



Aipagarria da baita, eremu honetan, Lauaxeta Ikastolan Lehen Hezkuntzan garatutako Ipuin Lehiaketa, 2. eskuko Liburu Azokagaz bat eginik ospatu zana "Liburuen mundua, zure mundua" Ielopez eta Aiala Bilbao Olabarri, Izaro Pagalday Aburto, Ane Bilbao Olabarri eta Uxue Abad Dubla, sarituak izan zirana.

Gure kultura balioztatzen

Ikasleek euren bizitzan gaitasunetaz haratago, **baloreak, ikasleek jarduteko daukien moduaren oinarri dira. Balore horien artean, eta kontuan harturik Lauaxeta Ikastolak euskalduna dan hezkuntza eskeintzen dauala, garrantzitsu ikusten dogu gure kultura ezagutu eta baloratzea**; mundura zabaltzea, gurea danaren aberastasuna ezagututa lehenago.

Hori dala eta, remu honetan ondorengo ekintzak burutu dira aurreko ikasturtean:



Euskarabentura:

Oier Rodriguez, Batxilergoko ikaslea, esperientzia honetan izan zan, lan historikoak, literarioak, ikus entzunezkoak edota plastikoak eskatzen ebazan lehiaketa honetan. Gaiak: euskara eta herria, euskara eta emakumezkoak eta euskara eta itsasoa.



Urruzunotarrak:

Iraide Aurrekoetxea, Ainara Iraragorri eta Helena Gorroño Marsal sarituak izan ziran prosa, modalitatean, "Gora motxilak", "Itsasbehera" eta "Ez nintzen horrelakoak egiten zituen horretakoa" lanengatik.



Euskara Batzordea:

86 dira guztira, Lehen Hezkuntzatik Batxilergora Euskara Batzordea osatu eta ikastolan euskararen alde lanean jarduten dabenak.



Mundura zabalduz: hizkuntzak

Lauaxeta Ikastolan euskarazko hezkuntza eskaintzen da; hau da, ikastetxeak ikasleen euskara-gaitasuna bermatzen dau, eskola-curriculumean zehar gure hizkuntzari ematen jakon tratamenduaren bitartez eta inguruan antolatzen diran kutur jardueri esker.

Euskarazko ikaskuntza oinarrizko elementua dala ahaztu gabe, Ikastolak hezkuntza eleanitza eskaintzen dau. Horrek esan nahi dau ikasleak gai izango dirala gutxienez hiru hizkuntzatan (euskara, gaztelania eta ingelesa) aritzeko, beste hizkuntza batzuen (frantsesa edo alemana) ezagutza eskuratzeaz gain:

Hizkuntza	Haur Hezkuntza (2-6 urte)	Lehen Hezkuntza (6-12 urte)	Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)	Batxilergoa (16-18 urte)
Euskera	Eskola curriculumaren barne. Errefortzua Haur Hezkuntzan			
Gaztelera		Ikasgai espezifikoa LH 1.tik aurrera		
Ingelesa	Ikasgai espezifikoa 4 urtetatik			
		Gorputz Hezkuntza, Science eta Speaking, ingelesez	Gorputz Hezkuntza, 1. eta 2.a, ingelesez eta Gizarte zientziak 1. mailan hautazkoa	Hautazko ikasgaiak, inglesez
Frantsesa			Hautazko ikasgaia 14 urtetatik	
Alemana			Hautazko ikasgaia 14 urtetatik	

Lauaxetan, hizkuntzen ikuspuntu funtzional eta komunikatiboa daukagu. Horregatik, hainbat dira ingelesaz gain, hizkuntza honetan gauzatzen diran beste ikasgaiak, ikasleen komunikaziorako gaitasuna sustatuz.

DBHtik aurrera, ikasleek ikastolan bertan Cambridgeko aztekerta ofizialak egiteko aukera dauke.

Helburu honegaz, ingeleseko irakasleek ikasle bakoitza dagokion ziurtagirira bideratzen dau, daukan ingeles mailaren arabera.

Horretaz gain, English Team taldea, ingeles irakasle eta euren ikasgaiak ingelesez emoten dabezan irakasleek osotutakoa, momentu bakoitzean, ingelesaren inguruan ikastolan garatu beharreko ekintzak definitu eta koordinatzeaz arduratzen da.



Europa mailako proiektuak

Errealitateak erakusten deusku, lurraldeen arteko mugak geroz eta lausoagoak dirala. **Horregatik, ezinbestekotzat jotzen dogu gure ikasleen hezkuntzak ere nazioarteko osagai hori barneratzea.**

Ilido honetatik, 2017-2018 ikasturtean ondokoak gauzatu dira:



Unesmun ekitaldia:

Zuriñe García, Sheila San Miguel, Iruñe Elordui, Maialen Vellisca eta Nerea Sainz de Baranda, izan ziran, mundu mailako gizarte, politika, eta ekonomiaren inguruko debate programa honetan.

Onda Vascan izandako elkarrizketa entzuteko:
<https://goo.gl/czKYka>



Brujasera elkartrukea:

Lauaxeta Ikastolako DBH 4. mailako ikasleek parte hartzen daben elkartruke programa dogu.



La Rochellera elkartrukea:

Lauaxeta Ikastolako 1. batxilergoko ikasleek parte hartzen daben elkartruke programa dogu.



Danimarkara elkartrukea:

Online elkatruketan baten ostean, Batxilergoko 1. mailako ikasle batzuek, Danimarkako ikasle batzuk ezagutzeko aukera izan eben.

Bideo bat ikusteko:
goo.gl/gz3iaL



Aipatzekoa da baita atal honetan Batxilergo duala. Diploma honek, ikasleak titulazio bikoitza lortzea suposatzen dau: batetik ikaslearen jatorriko herrialdeko batxilergo titulazioa (era presentzialean) eta bestetik, Estatu Batuetako batxilergo titulazioa edo High School Diploma (era digitalean).

Aipatzekoa baita European Youth Parliament esperientzia. Bertan, estatu ezberdinetako ikasleek ingelesez eta 3 minututako parte hartzeetan erupar araudiaren inguruko gaiak defendatu behar dabez (inmigrazioa, energia, politika, ekonomia, ...), beste parte hartzaileen argumentuei erantzunez. Bertan izan ziran Jon Castañeda Sanz, Ane Manzanares Vallejo, Irati Celada Cubero, Eneko Renteria Gabantxo, Asier Fernández Santos eta Amaia Etxebarria Zamalloa.

Hemen kokatzen doguz baita, 2017-2018 ikasturtea atzerrian emon daben gure ikasleen lorpenak. Irati Martín, esate baterako, Payette High Schoolen lortutako notengatik bertako saria jasotakoa.

Fátima Villa, Lauaxeta Ikastolako ikasle ohia, bestalde, antenakaz lotutako mundu mailako lehiaketa batetan saritua suertatu zan.

Udin: diziplina anitzeko proiektuak

Lauaxeta Ikastolan, UDIN deritzen lantaldeen bidez, diziplina anitzeko proiektuak lantzen doguz. Gela eta ikasgai desberdinak nahastuz, ikasleek gaurkotasuna dauan gai bateri buruzko irtenbideak proposatu behar dabez, arlo desberdinetan ikasitakoa aplikatuz.

Enpatia, sormena, adierazteko gaitasuna, autonomia, ikasten ikasteko gaitasuna, talde lana, erantzukizun soziala, ekimena, ... garatzen dira proiektu honeen bitartez.

Testuinguru honetan eta 2017-2018 ikasturteari dagokionez, ondoko UDINak aipatu daieguz: **“Kultur aniztasuna” (DBH 1), “Sexu identitatea” (DBH 2) eta “Smart Cities” (DBH 3).**

1. Batxilergoko ikasleen kasuan, aurrerago aipatzen dan bezala, Ekintzailatza Azoka garatu genduan. Bertan ikasleek, euren errealitatek hautatutako beharrezanez erantzuna emoten eutsen enpresak sortu eta epaimahai baten aurrean aurkeztu ebezan.

Atal honen barnean sartzen dira baita, Enpresa programa (Batxilergoko 2. maila) eta orientazio profesionala (Batxilergoko 2. maila eta DBHko 4. maila), ikasleengan euren etorkizunerako erabakiak hartzeko orduan argibideak pizteko helburua dabenak.


Proiektuetariko batzuk hobeto ezagutzeko:



“Kultur aniztasuna”
1. DBH



“Sexu identitatea”
2. DBH



“Smart Cities”
3. DBH

DBH eta Batxilegoan garatutako proiektu honeetaz gain, **Lehen Hezkuntzako ikasleek diziplina anitzeko proiektuak ere lantzen dabez.** Kasu batzuetan, ezagutza arlo bereko ikasgaiak inplikitzen dabez eta beste batzuetan, ikasturteko ikasgai guztiak barneratzen dabez.

Besteak beste, **Sexualitatearen proiektua (6. mailan).**

Informazio gehiago:
goo.gl/RWrqYg



Ekintzailletza eta enpresa programa

Arlo honetan, ondoko esperientziak izan dira 2016-2017 ikasturteari dagokionez:



Orientazio profesionala programa + Ekintzailletza proiektua:

Lauaxeta Ikastolan garatutako proiektuak doguz, ikasleen ikasketa aukeraketa erabakiak erreztu eta euren etorkizunerako garrantzia izango dauan espiritu ekintzailea pizteko asmoz.



Amorebieta-Etxanoko Herri-Eskola Foroa:

Lauaxetako ikasleak, Agenda 21en murgiltutako beste ikastetxe batzuekatz batera bertan izan ziran, ingurugiroaren ekitaldi honetan, euren ikuspuntua eta honbetzeko ideiak partekatuz.



Young Business Talent lehiaketa:

estatu mailako lehiaketa bat dogu, simulazioaren inguruko lehiaketarik garrantzitsuena da eta Universidad ESIC eta Niveak antolatuta dago. Maria Hernandez, Itxaso Larrabe, Garazi Cherino eta Ane Vazquez finalera iritsi ziran.

Lauaxetan garatutako proiekturi dagokienez:

- **Enpresa eta orientazio profesional programa:** Batxilergoko 2. mailako ikasleek, euren asmoetan darabilen ikasketei lotutako enpresetan praktikak egiten dabez. Aldi berean, bai eurek eta 4. DBHko ikasleek, euren ikasketa aukeraketan lagungarri izateko asmoz, hainbat hitzaldi jasotzen dabez. Ikasleei laguntzeko asmoz, eskerrak emon nahi deuseguz besteak beste: Batz, Bengoetxea Abodagos, Andres de Urdaneta Ikastetxea, Walter pack, Aiala Vidrio, Ingeteam, Osakidetza- Departamento de Personal de Emergencias, Hospital de Basurto y Hospital de Mendaro, Despacho propio vinculado a Lawyou Servicios para Juristas S.L., Vusa construcciones, IK4- Tekniker, ZIV Automation, Delicass, Euskaltel, Maier, Puerto de Bilbao, Clinica Quiron, Progenica-Grifols, FAES FARMA, Kam Food service- Burger King, Goizper, Sidenor, Custom sport, Bizitegi, Eroski, CENTRO ODONTOLÓGICO SMILE, BIGEL, Virtual Ware, LOINTEK S.L., INARGEST, S.L, Bilbao Arte, Tres D, Pausa Digital, Departamento criminologia Ertzaintza, Javi Heppe, Clinica oftalmológica Gernika, Ambulatorio Durango, DEIA, INEDI, AlborCos y Geu Be eta Lauaxeta Ikastolako gurasoei.



- **Ekintzailletza proiektua:** Batxilergoko ikasleek parte hartzen daben proiektua da, euren ingurunetik abiatuta beharizan bat aukeratu eta honeri erantzuteko enpresa bat eratu eta Ekintzaileen azokan, epaimahai baten aurrean aurkezten daben proiektua hain zuzen.

Ekintzaileen azokako
bideoa ikusteko
goo.gl/FJJdDH



Aurkeztutako enpresa ideien artean, Lauaxeta Ikastolako 4 ikaslek, tabakoaren eragin kaltegarria gitxitzeko garatutako ikerketa proiektua. Euren lana, estatu mailan eta atzerrian hainbat azoka eta zientzia topaketetan aurkeztu ondoren eta ikasturteak aurrera joan ahala, euren adinagaz eta konpetentzien garapenagaz batera urtez urte hobekuntzak zehaztu ondoren, oraingo honetan, Lauaxeta Ikastolako ekintzaileen azokan aurkeztua izan zan, ikasleotariko batzuk, 1. Batxilergoan izanik eta bere momentuan garatutako ikerketari enpresa forma emonez. Enpresaren izena: TekBACO eta hona hemen komunikabideetan izandago ohiartzuna:

“El ingenio se cuele
en las aulas”
El Correo
goo.gl/6qfWu3



“Inventoras del
tabaco sano”
DEIA
goo.gl/Atiw3p



“¿Puede un filtro reducir los efectos
nocivos del tabaco?”
Onda Vasca
goo.gl/94gsNq



Eskolaz kanpokoak eta garapen pertsonala

Lauaxeta Ikastolak, hainbat eskolaz kanpoko ekintza eskeintzen dauz, ikasleen zaletasun eta interesei adituz eta euren garapen pertsonala bideratzeko beste era bat bezala. Joandako ikasturteari dagokionez, azpimarratzekoa da kultur ekintzekiko erakutsi dan interesa:



Kultur ekintzak:
ingeleza, EGA, laborategi
teknologikoa, abesbatza,
dantza eta adierazpen
artistikoa.



Kirol ekintzak:
multikirola, igeriketa,
futbola, saskibaloia, mendi
irteerak, ...



Aisialdiko kurtsoak:
lehen
laguntzak,
sorosletza,
aisialdirako begiraletza.



Kirola, Lauaxeta Ikastolan

Kirolaren praktikaren onura fisiko eta psikologikoaz gain, **Lauaxeta Ikastolan, kirola ikaslearen garapen pertsonala bideratzeko bide bat bezala ikusten dogu. Zentzu horretan, kirola balore batzuei lotuta doala ulertzen dogu** (taldea, errespetua, elkarbizitza, ...). Hauxe da Lauaxeta Ikastolan kirolaren filosofia, bai ordu lektiboetan gauzatzen danarena, baita eskolaz kanpoko kirolarena ere.

Horrela izanda, 2017-2018 ikasturtean ondokoak garatu doguz:



Entrenatzaile, monitore eta uretako sorosletza:

batxilergoko ikasleek, ikastolan entrenatzaile, uretako sorosle eta aisialdiko monitoretza tituluak jasotzeko aukera dauke. Honek, eurengan balore batzuk sustatzeaz gain, etorkizunerako prestakuntza profesional bat eukiteko aukera eskeintzen deutse.

Orienting:

Lauaxeta Ikastolako 5. eta 6. LHko ikasleak, Lauaxeta ingurutik orientingean ibili ziran. Mapa bat, iparrorratza, erronkak, ingurua ezagutzeko aukera eta abentura!

2018ko Kirol tokapeta solidarioa:

ikasle, familia eta ikasle ohiei zuzendutako kirol topaketa solidario bat ospatu genduan. Jasotakoa, Born To Learn GKera bideratu genduan, beharrian berezietan dagozan umeentzako eskola bat eraikitzeko asmoz.

Lauaxeta Ikastola eta Athletic hitzarmena:

Lauaxeta Ikastolak Athletic egaz eukan akordioa barritzatu dau, honela, Athleticen aholkularitza eta laguntza jasoz.

Atal honetan, aipatzekoa da baita María Elorz ikasleak hipikan lortutako emaitzak. Horren erakusgarri, bai estatu mailan eta baita nazioarteko probetan parte hartutako eta lortutako emaitzak: Trofeo Princesa Asturias, Campeonato de España, Global Champions Tour, Trofeo Casas Novas (Galicia), CSN 5* Toledo eta Goi Mailako kirolariaren aitortpena.

Hezkuntza eta guraso eskola

Hezkuntza ez da zientzia zehatz bat eta sarritan ez daukagu guraso lanean emaitza ziurren berme dan teoriarik. **Guraso lana, ekinaren ekinez egunero ikasten danetarikoa da, azken baten, gure seme-alabak aldatuz doazelako etapa desberdinetatik garatzen diran heinean eta gu geu ere guraso bezala, aldatzen goazelako eureka, bidean.**

Gure seme-alabak guretzako garrantzitsuak diranez, gure erabakiak zuzenak izatearen lasaitasuna asko izaten da, eta horregatik, **guraso lan horretan orientazioa izateari baliagarria deritzogu.**

Asmo horrek bultzatuta Lauaxeta Ikastolatik, 2076-2018 ikasturtean zehar, familien harrera ona jaso daben hainbat ekintza gauzatu doguz:



Familias que suman:

Lehen Hezkuntza eta DBHko 1. eta 2. mailako familiei zuzendutako hitzaldi honetan familia eremutik, seme-alaben garapenaren alde ekarpen positibo bat zelan egin hausnartu genduan.




Seguros online:

Sekuritzen eskutik, Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako familientzat, interneten erabileraren inguruko hitzaldi hau egin genduan.



Frustrazioa, gaingabesa eta emozioak:

Albor-Coshegaz batera, Haur Hezkuntzako familiei eskainitako hitzaldia.



Kiva hitzaldiak:

Hitzaldia, Lehen Hezkuntzako familiei eskaini jaken, familien inplikazioa funtsezkoa baita programa honen barnean.



Emozioak:

Lehen Hezkuntzako 2. mailako gurasoei eskaini jaken, Coach&Playren eskutik.




iPadaren erabileraren inguruko hitzaldiak, Lehen Hezkuntzako eta DBHko iPad 1x1 proiektuaren barne dagozan gurasoei emon jakezan.



Emozioen kudeaketa:

Haur Hezkuntzako gurasoekaz garatu zan, grupo Albor-Coshen eskutik.



Eskola eta lanbide orientazio hitzaldiak, Batxilergoko familiei eskeinita, ADEYPen eskutik.

Baloreak, elkarbizitza eta ikasketa-zerbitzua

Pertsonak izaki sozialak gara eta gure garapenerako, garrantzitsua da gure alde soziala ere hezte. Aldi berean, garrantzitsua da gure ikasleak, euren jarrera eta ekintzen bitartez, gizartea hobetu daikiela konturatu araztea.

Ikasketa-zerbitzua, ikasketa eta gizartearenganako zerbitzua batera bilatzen dauazan hezkuntza da.

Teknika honen bitartez, ikasleak egoera errealean ikastea bilatzen dogu, gizartearen hobekuntza, ikaslearen beraren jarrera eta ekintzaren ondorioz.

Egunerokoan eta tutoretzan garatzen diran, eta ikastolak erakunde mailan gauzatzen dauzan ekintza solidarioetaz gain, **Batxilergo ikasleen bolondres ekintzak azpimarratu daikeguz:**



Boluntariotza programa:

Batxilergoan, nahi daben ikasleek (momentu honetan 100dik gora) boluntariotza ekintzak egin daikeez, gizarte laguntza, hezkuntza, eta bestelako ekintza gauzatuz, ikastolaren koordinazioaren arabera.

Fair Saturday 2017:

Lauaxeta Ikastola Fair Saturday mugimenduagaz bat egin zan pasatako ikasturtean. Mugimendu hau, azaroko azken zapatuan gauzatzen da eta kultura eta artea bitarteko dirala, mundua hobetzea dau helburu.

Bideoa ikusteko:
goo.gl/wuU1b1

World Peace Game:

EEBBko ekimen bat dogu, pasatako ikasturtean Lauaxetara ekarri zana. Rol bidezko joko honek, kooperazioa, alkarlaguntza, sormenak, diziplina anitzeko taldelana, adimena, komunikazioa, arazoaren ebazpena, erabakiak hartzea... jartzen dauz mahai gainean. .



Arlo honetan, elkarbizitza hobetzeko, arazoak konpontzeko eta kooperazioa eta alkar laguntza bultzatzeko, gelan garatzen diran ekintza eta dinamikak ere aipatu daikeguz.

Aldi berean, elkarbizitzaren alde, Lauaxeta Ikastolan ikasle erreferenteek egiten daben lana ere azpimarratzekoa da. DBHko 1. zikloan elkarbizitzarako komisia daukagu. Hau, 5 ikasle osotzen dabe eta ikasle guztiak pasatzen dira talde horretatik. DBHko 2. zikloan, ikasle erreferenteen figura daukagu eta gelako ikasleek eurak aukeratutako 2 ikasle izaten dira lan horretan. Eta batxileroan G7 deritzon taldea daukagu, gela bakoitzeko ordezkariak osotutakoa eta hau ere ikasleek eurak aukeratuta.

Figura honek, euren berezitasunak euki arren, elkarbizitzaren inguruko lan komun bat dauke: ikasle eta irakasle/tutoreen arteko bitartekari lana egiten dabe hain zuzen eta gelako egunerokoan sortu daitekezan arazo edo hobetzekoak bideratzen dabez. Ikasle, irakasle eta tutoreei entzun eta bakoitzaren erralitatetik abiatuz, egoerak hobetzen saiatzen dira.

Lauaxeta Ikastola, KiVa eskola

